

**LAPHITZ-ARBELBIDE:  
BI IDAZLE EUSKALDUNEN HARIA**

**Agurra**

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Arratsalde on guztioi!

Egun, urtero legez, Euskaltzaindia Iparraldeko Euskal Herrira dator, euskararen alde lan egindako bi idazle behenafarrak ospatzeko asmotan.

Laphitz eta Arbelbide, Arbelbide eta Laphitz, tentazionea izan daiteke urrunean eta aparte ikusteko bi horiek, duela ehun urte hildako idazle ihartuak balira bezalaxe.

Kronologiaz hala bada ere, letraz eta lumaz ez da horrela. Behin baino gehiagotan azpimarratu dut gogo hau, Akademiak berak sarritan errepikatu duena. Izan ere, Laphitz eta Arbelbide hitzaren maisuak dira, hain zuzen ere, euskal hitzaren maisuak.

Mezua eta edukia, egia da, aspaldikoa eta zaharkituxea izan dakiguke. Azala eta forma, aldiz, bete-betekoa, euskararen ereduak ematen baitizkigute idazle hauek. Horra hor, garaiotan ere, konturik beharrenak zaizkigunak.

Arean ere, Laphitz eta Arbelbide Iparraldeko euskal letretako loratzearen lekuko ezin hobegoak dira, XIX. mende hondarrean eta XX. mende hasieran euskara goi mailara eraman zutenak, herritartasunaren alderdia zokoratu gabe.

Hor dira zinezko literatura baten ezaugarriak, kalitatea eta herritartasuna lotzen dituenak, inolako lotsa eta heraberik gabe.

Baditugu gaur horietan arituko diren adituak, besteak beste:

1. Piarres Charriton: «Frantzisko Laphitz –Arriadaren bizia eta lanak»
2. Pello Salaburu: «Euskara batua eta euskara ereduak»
3. Xipri Arbelbide: «Jean-Pierre Arbelbideren bizia eta lanak»



Hortaz aparte gure ohitura den bezala, Jean Haritschelarrek egingo du berikihil den Pierre Duny-Pétreren euskaltzain urgazkearen hilberri-txostena («Pierre Duny-Petre gogoan»).

Bukatzeke halako bitxikeria. Laphitzen *Bi saindu hescualduen bizia* nire eskuetara etorri zen, duela denpora gutxi, frantses hizkuntzaren jantziaz. Izena zuen *La vie de deux saintes basques: Saint Ignace de Loyola eta Saint François Xavier*; itzultzailea, Mayi Milhou eta argitalpen data, 2002. urtea. Bakan eta noizbehinka bakarrik gertatu da historian zehar halako euskal liburuak frantsesez agertzea. Horrek erakusten du, beharbada, liburu horren freskotasuna eta menturaz, ikerleek arakatu beharko duten bestelako ildoak, alegia, gaztelaniazko bertsioarena, noizbait norbaitek ondu omen zuena.

Hitza dute orain gaurko hizlariek. Nire aldetik, Arbelbideren aipua, *Igan-dea* liburuan euskararena egoki zertzen duena:

Hitz batetik ala bertzetik has dezazun solasa, zure elheak bethi chuchen adosturen dire, hala-nola ehaile trebearen eskuetan irazkia eta bilba elkharrekin trebeskatzen baitire, bata bertzeari lotzen, josten eta tinki-tinkian oihal hazkar atheratzen.